

ELKARBIZITZA PLURALISTA ETA MEMORIAN OINARRITUTAKO BAKERAKO PROPOSAMENAK

BORTIZKERIARI BURUZ

Elkarbizitzaren birzorkuntzarako iragana ez estaltzea garrantzizko erronka da, indarkeria bidegabea eta alferrikakoa izan dela. Gaur egun ezker abertzaleak bortizkeriaren aldeko apustuari uko egin dio, aldaketa estratégico bat dela eta, baina biktimiei eragindako mina bidegabea, justifaezina eta alferrikakoa izan zela ez du onartzen.

Honetaz aparte Estatuaren ordezkariak segurtasun indarrek eragindako tortura eta tratu txarreei, eta talde parapolizialeen biolentziari ere emandako babesa aitortu beharra dute.

BIKTIMAK ETA JUSTIZIARI BURUZ

Bortizkeriak maila desberdineko giza eskubideen urraketa sortarazi du. Biktimiek egiara, justiziara eta erreparazio moral, politiko eta legalera daukaten eskubidea defendatzen dugu. Hau da, oraindik argitu gabe dauden kasuak ikertu behar dira (hilketak, bahiketak, desagertzeak, torturak) eta, ahal izanez gero, epaitu. Ez dira ikertu gabeko krimenik egon behar.

Gainera justizia restauratiboa baten alde egiten dugu. Delitu hauek egin dituzten pertsonak, taldeek edo erakundeek aitzaki gabea, arrazoitu ezina eta alferrikakoa izan den mina onartu beharko zuten, bai gizartearen aurrean, bai euren biktimen aurrean, zehatz-mehatz.

PRESOAK, GIZA ESKUBIDEAK ETA BIRGIZARTERATZEARI BURUZ

Espetxe-politikak pertsonen eskubideak arduratsu babestu behar ditu. Beraz, ETA-kide presoek gerturatzea eskatzen dugu, gaitz sendaezinak daukaten presoak kartzelatik ateratzea, espetxe-abantailak aplikatzea inor bereiztu gabe ezartzea (baimenak, gradu-aurrerapenak, Parot doktrinaren amaiera...). Dena den, aldarrikapen horiek ez ditugu lotu behar aldi berean presoek egindako omenaldiekin, izuaz besteen giza-eskubideak larriz urratu dituztenei egindakoekin, estaerako. Paraleloki Administrazioak presoek birgizarteratze-prozesu banakoak garatu behar ditu.

Horretaz gain, era baketsuz garatutako aukera politikoei ziurtatu behar diegu antolatze eskubidea eta hauteskundeetara aurkezteko eskubidea. Esparru honetan salbuespen-legeek ezin dute dirau, batez ere oinarritzko askatasun politiko horri uko egiten badiete.

MEMORIA DEMOKRATIKOARI BURUZ

Biktimien testigantza zuzenak zabaldu egin behar dira memoria demokratikoaren oinarri bezala. Pairatutako bidegabezko sufrimendua gogoarazteko eta sekula ez berriro inork kalteak jasan ditzan motibazio politikozko kausak direla eta. Halaber Giza Eskubideen defentsa koherentean nabarmendu ziren pertsonak eta mugimenduak gogoratu egin behar dira. Memoria hau, giza mugimenduen bultzatutako elkarriketa ekimenen bitartez eta hezkuntzari arreta berezia eskainiz, hedatu beharko zen.

BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUNARI BURUZ

Erronka nagusia da gizarte osoan gure aniztasuna errespetatzu bizikidetza eraikitze erantzukizuna hedatzea. Aniztasunaren ikuspegitik nazio sinbolo eta hizkuntzak arautzen dituzten adostasunen alde gaude, enfrontamendua bilatu gabe, denon kultura publikoa eraikitze eta herritarren artean elkarrekin hitzartua ohi den beren etorkizuna erabakitze eskubidearen alde.

